

EUSKARAREN PRESENTZIA HEGO EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA-SISTEMAN

Luis M. Naya Garmendia

X. Etxague Alcalde

F.J. Lukas Mujika

Artikulu honen egileek euskararen presentzia Hego Euskal Herriko hezkuntza-sisteman ikertzen dute. Helburua finkatu ondoren, testuinguru juridikoa aztertzen dute: 1978ko Konstituzioa, epaitegi konstituzionalak emandako ebazpenak, Hezkuntzaren Eskubidearen Lege Organikoa (LODE delakoa)... eta gero bai Euskal Autonomi Elkartean eta bai Nafarroan ere euskararen presentzia hezkuntza-sisteman arautzen duten dekretuak.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez ereduen definizio legalaz gain, hauen gauzapena eta bakoitzak lorturiko emaitzak ere ikertzen dira: A ereduko ikasleak eskolaratzea bukatzerakoan elebakarrak dira, nahiz eta 900 ordu eman euskara ikasten, B eredukoek berriz A eredukoek erdara-maila dute, baina D eredukoek euskara-mailara ez dira ailegatzen, beraz elebidun desorekatuak dira, eta D eredukoek gaztelania besteek bezala menderatzen duten bitartean euskara ere oso ongi menderatzen dute, ondorioz elebidun orekatuak hemen aurkituko ditugu. Nafarroan antzeko emaitzak ematen dira, baina kontuan hartu beharreko beste puntu bat agertzen da: eskualdea. Nafarroan 3 eskualde bereizten dira: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna, lehenengoan guraso edo tutoreek irakas-hizkuntza aukera dezakete. Mistoa hizkuntz eskubideei egiten diren aipamenak ez dira oso zehatzak, izan ere ez da aipatzen aukera egin daitekeenik. Bukatzeko eskualde ez-euskaldunean euskarazko irakaskuntza ez da aipatu ere egiten, hots, ez du inolako babes legalik.

Artikulua bukatzeko eredu linguistikoen bilakaera koantitatiboa aztertzen da, Euskal Autonomi Elkartean OHOn azken hamar urteotan 107.000 haur gutxiago matrikulatu dira, 1985-86 ikasturteetik hona A ereduak 119.000 ikasle galdu ditu, beraz argi dago Euskal Autonomi Elkarteko gurasoek eredu honetan ez dute konfidantza handirik eta 1992-93 ikasturtean lehenengo aldiz B eta D ereduek gehiengoa osatzen dute, eta ezartzen duten erritmoa geldiezin dela ematen du. Nafarroan egoera ez da horren alai, baina Eskolaurrean eta OHOn ikasle-kopurua poliki-poliki gorantz doa.

Sarrera

Artikulu honen egileek Euskal Herriko hezkuntza-sisteman euskarak duen presentziaz gogoeta txiki bat egin nahi izan dute. Helburu hori betetzeko ezinbestekoa izan da hainbat ikerlan eta datu aztertzea. Ondorengo orrietan hainbat datu eta burutapen eskaintzen dizuegu; zuek ere gogoeta horien partaideak izan zaitezten.

Hezkuntza elebidunaren definizioa

Euskal Herriko hezkuntza elebidunaren ereduaren sailkapenarekin hasi aurretik, autore askok onartzen duten hezkuntza elebidunaren definizioa eskainiko dugu:

“Edozein irakaskuntza-sisteman une aldakor batean eta proportzioz alda daitekeen epe batean, batera edo jarraian, irakaskuntza gutxienez bi hizkuntzatan (bat normalean, ikaslearen lehen hizkuntza delarik), egiten denean”. (FISHMAN, 1976; HAMERS eta BLANC, 1983; VILA, 1983; FERNANDEZ, SANCHEZ eta TEMBLEQUE, 1986; SIGUAN eta MACKEY, 1986).

Definizio honetan adierazten denez, hezkuntza elebiduna eman dadin, ikas-irakaskuntzaren bitarteko bezala bi hizkuntzak erabili behar dira. Bigarren hizkuntzaren edo atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza ikaslaro bezala, nahiz eta osorik ikasten ari den hizkuntzan landu, ez da hezkuntza elebiduna kontsideratzen. Linguisti-

koak ez diren edukiak (matematika, gizarte, natur zientziak e.a. bezalakoak) bigarren hizkuntzan lantzen direnean, kontsidera daitezke programa elebidun (LUKAS 1990).

Bestalde, irakaskuntza-prozesuan lehen hizkuntzaren erabilera adierazten da, beraz, ikasleen hizkuntza ez den beste hizkuntza batean ikasten badute, ez da hezkuntza elebidunari buruz hitz egingo.

Testuinguru juridikoa

Euskal Herriko hezkuntza elebidunean eragiten duen legeri espazioen azterketak, maila desberdinetako sakontze-lana eginarazten digu. Hasteko, estatuarteko mailan araututako legeria aztertzen saiatuko gara. Ondotik, Espainiako estatu-mailan ezarritakoaren azterketari ekingo diogu. Eta bukatzeko, autonomiaren gaineko legeri eremu hauek baldintzaturik, Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan zer arautu den aztertuko dugu.

Estatu arteko mailan arautzen duten erakundeek oso arduratuta agertu dira, XX. mendearen bigarren erdi honetan, gutxiengoaren hizkuntzak juridikoki babesteaz. Hala ere esan beharra dago, nahiz eta legeri marku honek garrantzi teoriko handia izan, ez du askotan isladapen zuzenik estatu barruko legerietan. Alegia, nahiz eta nazioarteko izpiritua edo sentsibilitatea hizkuntza guztien elkarrekiko errespetuan eta berdintasunean oinarritu, estatuen legeek bestelakoa agertzen dute, gutxiengoaren hizkuntzei

estatuaren hizkuntza gainjarriz. Bestalde, ZABALETA-k (1986) esaten duen bezala, “nazioarteko arauak, nahiz eta balio teoriko handiagokoak izan, besteek baino eraginkortasun praktiko gutxiago izaten dute maiz”.

ZABALETA-k berak (1986) jasotzen du maila goreneko nazioarteko agiri garrantzitsuenak:

Eskubide zibil eta politikoetako ituna. NBE-ko Batzarre Orokorrak 1966an onartua. Bere 27. artikuluan honela dio: “Etnia, erlijio nahiz hizkuntz gutxiengoak dituzten Estatuetan, ez zaie gutxiengo horietako pertsoneri ukatuko, bere taldeko partaideekin batera bizitza kultural propioa izateko, beren erlijio propioa praktikatzeko eta beren hizkuntza propioa erabiltzeko eskubidea”. Itun hau ez da aitorten hutsa, eta berronesten duten estatuentzako betebeharrak juridikoak ere baditu.

UNESCOn konbentzioa. Aurrekoa baino maila apalagoan, baina nazioarteko inguruan ere, UNESCOk 1960ko abenduaren 14an onartu eta Espainiak onartu zuen Irakaskuntza alorreko diskriminazioen kontrako borrokari buruzko konbentzio hau dugu.

Bere artikuluetan gutxiengoek beren eskolak zabaltzeko eta horietan beren jatorrizko hizkuntza erabiltzeko eskubidea onartzen da, estatuak behartuz eskubide horiek bermatzen; horren kontrolerako txostenak igorri behar dira hartutako neurriei buruz eta 1962an

“Adiskidetzeta eta Artekotzeta Batzordea” sortu zen eztabaidak konpontzeko.

Giza eskubideen aldeko europar konbentzioa. Maila mugatuagoan azken honek, konbentzioan onartutako eskubide eta askatasunen gozamina baieztatzen du edozein diskriminazio-moduren kontra eta, espreski aipatzen dituenen artean, hizkuntzan oinarritutakoak aurkitzen dira.”

AGIRREAZKUENAGAK (1991), Europako nazioarteko erakundeetan isladatzen den sentsibilitate politiko kulturalaz honela idazten du:

“Gaur egun hasiak dira Europar gutxiengoaren kultura eta hizkuntzak gero eta gehiago baloratzen eta errespetatzen. Horren frogarriak dira, bai Europako Parlamentuak eta bai Europako Kontseiluak larogeiko hamarkadan hartu zituzten iniziatibak, zeintzuek lortu bait dute **Europako Parlamentuaren onespenez Europako Komunitateko gutxiengo erregional eta etnikoen hizkuntza eta kulturei buruzko Ebazpena**-rentzat, eta Europako Kontseiluko Parlamentarien Batzarreak **Ebazpen 192/1988koa (Europako karta) Europako hizkuntza erregional eta gutxiendarrei buruzkoa** hartzea, zeina aurretiaz izan bait zen onetsia Europako Botere Lokal eta Erregionalengatik.

(...) Beraz, orain dagokigunaren arioren esanenez, Europako Parlamentuak kontsideratzen

duela, ezen “ezinbestekoa dela Estatu kideek beren gutxiengo linguistikoak aurrezagutzea beren barneko ordena juridikoaren marko-barruan, horrela hizkuntza gutxiendarrak kontserbatu eta garatzeko baldintzak sor ditzaten”. Berebat, “bultzatu egiten ditu Europako kontseiluak egindako ahaleginak, hizkuntza erregional eta gutxiendarren Europako karta elaboratzeko”

Idazki berean Agirreazkuenagak aipatzen du Europako Parlamentuak, hizkuntza gutxiengotuak hizkuntza nazionalen maila berean gara daitezen, neurri konkretu batzuk gomendatzen diela Europako Komunitateko Estatu-kideei. Hala nola, alor administratibo eta judiziala, gizarte-komunikabideak, kulturazko azpiegitura, alor sozio-ekonomikoa, edo irakaskuntzari dagokionez.

Konklusio gisa esan dezakegu nazioarteko erakundeek, hizkuntza gutxiagotuen aldeko sentzibilitate baloragarria erakusten dutela. Hizkuntzekiko errespetua eta bermetasun kulturala hedatzen duen korronea zabaltzen ari da gure nazioarteko testuinguru hurbilean. Hala ere, marku honek ez du inolaz ere eztabaidatzen hizkuntza nazionalen eta nazio arteko hizkuntzen lehentasuneko posizioaz.

1978ko konstituzioak ezartzen eta mugatzen du Espainiako legeri markua. Honela dio lege nagusi honek:

3. Artikulua

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala.

Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.

2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutuei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntz mota desberdinen aberastasuna Kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.

SANCHEZ CARRIONek (1987), hiru mailetan bereizirik, aztertzen ditu aipaturiko konstituzioaren artikulua honen inplikazioak:

a) Maila indibidualean:

Estatuko inongo hiritarrek ez ezagun dezake Gaztelania. Edo bestela esanda, estatuko hiritar guztiok ezagutu behar dugu Gaztelania. Inongo euskaldunek dauka Euskara ezagutzeko beharkizunik. Beraz, Euskaldun guztiok ezagutu behar dugu Gaztelania, baina edozein Euskaldunek ezezagun dezake Euskara.

b) Giza mailan:

Euskal Herriko hiritar euskaldunak erdalduntzen dira. Erdaldunak ez dira euskalduntzen. Komunitate bat ahuldu egiten da; bestea berriz, indartu. Komunitate bat elebiduna da; bestea berriz elebakarra. Beraz, hiritar ez-euskaldunak ez dira euskalduntzen, hizkuntza bakar batez (Gaztelaniaz), bi komunitateekin harremanetan sar daitezkeelako. Honela, Euskara sozialki ez-beharrezko (premiagabekoa) bilakatzen da.

d) Lurralde- mailan:

Espainiako lurralde politiko osoa Gaztelaniaren lurralde linguistikoa da. Euskal Komunitate Autonomoaren eta Nafarroako lurralde euskaldunaren lurralde politikoak soilik, izan daitezke Euskararen lurralde linguistikoa.

Gaztelaniak, Espainiako estatuaren barruan, lurralde zabal eksklusiboak dauzka, eta lurralde euskaldunean, ukipen-eskualdea dauka. Euskarak ez dauka bat ere lurralde eksklusiborik, eta daukan apurra ukipen-eskualde hutsa da.

Beraz, lurralde espainiarrak lurralde euskalduna fagozitatuta dauka.

Aurrekoan esandakoari orain AGIRREAZKUENAGAK (1991) konstituzioaren baitan antzematzen duen “sofisma” erants diezaiokegu. Alegia, konstituzioaren irakurketan oinarrituz, inplizituki interpreta liteke estatuko hizkuntza guztiak, beraien lurraldeetan Gaztelaniak duen estatus berekoak izan beharko luketela, bai gizarte-erabilpena, bai administrazio-erabilpena, bai irakaskuntza, bai beste edozein inplikaziori dagokionez; baina konstituzioaren erredakzio testualak, gaztelaniaz aparteko hizkuntzak ezagutzeko beharkizun esplizitua ez aipatzeak bestelako ondorioak ekarri ditu.

Epaitegi konstituzionalaren hainbat agerpidetan, Gaztelania ez den beste hizkuntzak ezagutzeko beharkizun-eza azpimarratzen da; egoera honen ondorioak edozein hizkuntz espaziori (administrazio, irakaskuntza, lan-harreman, e.a. etara), zabal daitez-

keelarik. Beraz, aipatutako guztiaren ondorio gisa hauxe esan dezakegu: Beharkizun kontzeptua, bakarrik Gaztelaniari dagokio.

Izan ere, estatuko maila goreneko legeari dagokionez, ondoriozta dezakegu oso marku eskasa eta badaezpadakoa ezartzen duela. Izan ere, normalizazio-prozesuari begiratuz gero, marku honek porrotaren arriskua areagotzen du.

Irakaskuntza-eremua arautzen duten legeei so eginez, ikus dezakegu estatuko hizkuntza gutxiagotzekiko tratamendua gaztelaniarena bera dela, hizkuntzei beraiei buruz egiten diren aipamenak oso orokorrak direlarik.

Honela, 1985ko Uztailaren 3ko LODEK (ley orgánica del derecho a la educación), aurretitularen 2. artikuluan honela dio:

“La actividad educativa, orientada por los principios y declaraciones de la Constitución, tendrá, en los centros docentes a que se refiere la presente Ley, los siguientes fines:

- a) El pleno desarrollo de la personalidad del alumno.
- b) La formación en el respeto de los derechos y libertades fundamentales y en el ejercicio de la tolerancia y de la libertad dentro de los principios democráticos de convivencia.
- c) La adquisición de hábitos intelectuales y técnicas de trabajo, así como de conocimientos científicos, técnicos,

- humanísticos, históricos y
estéticos.
- d) La capacitación para el ejercicio de actividades profesionales.
 - e) La formación en el respeto de la pluralidad lingüística y cultural de España. (azpimarra gurea da)
 - f) La preparación para participar activamente en la vida social y cultural.
 - g) La formación para la paz, la cooperación y la solidaridad entre los pueblos.”

Bestalde, “disposiciones adicionales” delako atalean, hizkuntzaren irakaskuntzan ondorioz izan dezaket hainbat kontsiderazio egiten du:

“Disposiciones Adicionales:

Primera.

1. La presente ley podrá ser desarrollada por las comunidades autónomas que tengan reconocida competencia para ello en sus respectivos estatutos de autonomía o, en su caso, en las correspondientes Leyes Orgánicas de transferencia de competencias. Se exceptúan, no obstante, aquellas materias cuya regulación encomienda esta ley al gobierno.
2. En todo caso, y por su propia naturaleza, corresponde al Estado:
 - a) La ordenación general del sistema educativo.
 - b) La programación general de la enseñanza en los términos establecidos en el artículo 27 de la presente ley.

- c) La fijación de las enseñanzas mínimas y la regulación de las demás condiciones para la obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales válidos en todo el territorio español. (azpimarra gurea da)
- d) La alta inspección y demás facultades que, conforme al artículo 149.1.30 de la Constitución, le corresponden para garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos.”

Beraz, honen arabera irakaskuntzaren programazio orokorra, gutxienezko edukiak eta tituluen banaketa besteak beste, estatuaren esku gelditzen direla ikusten dugu.

Jakin, badakigu aspektu honek interpretazio desberdinak sortarazi dituela. Batzuentzat, gutxienezko mailaren ezarpen eta kontrol honek berdintasun demokratikoaren ezinbesteko berma eta sustapena garatzen dituen bitartean, beste batzuentzat, estatuko herrialde desberdinen ezinbesteko eskubideen murrizketa eta zentralismoaren ezarketa suposatzen du. Guzti hau hizkuntzaren zein beste edozein ikasarlaren tratamenduari zabal dakiokelarik.

Legeria honetan agertzen diren arau-molde hauek, 1990ko Urriaren 3ko LOGSE-k (Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo), eta honen ondoko “Reales Decretos de desarrollo de la LOGSE” izeneko legeriak, garatu dituzte. Haue-

tan, Gaztelaniak eta beste hizkuntza ofizialek tratamendu berdina dute.

Honela, **LOGSE**ren bigarren kapituluaren, **13., 19. eta 26.** artikuluetan ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak markatzen dira eta horien artean, bai lehen hezkuntzan, bai bigarren hezkuntzan eta bai batxilergoan, aipatzen dira, maila berebean, Gaztelania eta Autonomi Elkarte bakoitzeko hizkuntza propioa.

Azter dezakegun bezala, konstituzioaren ondotik estatuko parlamentuan aprobatutako irakaskuntza-lege hauek, nahiz eta curriculum eskolarraren espazio garrantzitsua arautu (% 55, hizkuntza ofiziala duten komunitateetan), oso proposamen egokigarria da. Izan ere, derrigorrezko atalak, helburuak eta edukiak, oso proposamen oro hargarriak dira, tokian tokiko ezaugarrien araberrako egokipena errazten dutelarik.

Bestalde, legeak ikasleak bi hizkuntzetan lortu behar dituen iaiotasunak aipatzen ditu, baina ez du ezer aipatzen eskolako hizkuntza behikularri buruz. Hau dela eta legeak, nahiz eta gaztelaniaren irakaskuntza eta ikaskuntza derriortu, ez du oztzatzen, behintzat, Euskarazko (edo beste hizkuntzazko) irakaskuntza.

1. Testuinguru juridikoa

Euskal Autonomi Elkartearen

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, nahiz eta aurretik zenbait esperientzia egon, 1960tik aurrera,

hasiera batean ikastolei esker hezkuntza elebidunaren izugarriko zabalkuntza emango da, (ikus GARAGORRI eta besteak 1983), 70.eko hamarkadan Euskal Herriko eskualde guztietara ailegatuz (Felix ETXEBERRIA, 1987). Haur euskaldunen euskara mantentzeko sortzen dira ikastolak. Baina halere, hasiera-hasieratik haur erdaldun gutxi batzuk ere ikastoletara joaten dira murgilpen-egoeran aurkituz. Jokabide hau egokia izan da ikastoletara zihoazen haurren kopurua gehiengo handi batean euskalduna zenean. Izan ere, haur gehienak euskaldunak ziren bitartean hauek erabakitzen zuten bertako giroa eta bertaratzen ziren erdaldunek euskara eta euskaraz ikasteko oso inguru eta baldintza aproposak topatzen zituzten. Baina emeki-emeki haur erdaldunen kopurua handitzen joan zen eta honen eraginez, irakasleak haur hauek tratamendu berezia behar dutela azaltzen joango dira (LUKAS, 1990). TORREALDAIK (1981) aipatzen ditu irakasleak haur erdaldun hauei nabaritutako arazoak:

- * Ikasle erdaldunak, "ikasle arazodun" bihurtzen ari ziren.
- * Euskararen erabilerak komunikazio-bide bezala jaitsiera nabarmena izan zuen.
- * Egunetik egunera ikasle erdaldunei behar bezala kasu egitea zailago bihurtu zen.

Hau konpondu nahian zenbait ikastolatan estrategia berriak erabiltzen hasiko dira (Felix ETXEBERRIA, 1987): ikasleak beraien jatorri linguistikokoaren arabera bilduz, haur

erdaldunei, hasiera batean behintzat, irakaskuntza gaztelaniaz eskainiz, e.a. Planteamendu honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren babesa izango du, ARISTI eta besteek (1979) egindako planteamendu teorikoan oinarrituz. Ikastola, ikastetxe publiko eta pribatuentzat irakaskuntzaren eredu linguistiko berriak proposatuko dira (aurretik LASAk, 1978an, eredu birmoldaketa iradokitzen du). Planteamendu berriaren ondorioz, hona hemen legeriaren arabera euskara eta gaztelaniaren erabilerak hezkuntzan.

10/1982 Legea. (Hezkuntza alorreko hizkuntz normalkuntzaren oinarritzko irizpideak).

“Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie.” (15. atala).

“Jaurlaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantza emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo ekintzapidetan eta ardularitzako ihardun eta agirietan euskara agizko adierazpide eginez.” (17. atala).

138/1983 Dekretua eranskinak. (Ikasteredu elebidunak).

Eskolaurre eta Oinarritzko Hezkuntza Orokorrean.

“**A eredua.**- Irakasgai guztiak –euskara bera izan ezik– oinarritz gaztelaniaz landuko dira. Euskara irakasgai eran beste edozein gai bezala emango da... OHOk goi-mailetan beste irakasgaietako zenbait gai ere euskaraz landu ahal izango dituzte, baldin eta ikasleak beren euskara mailaz nahiko trebaturik baleude.”

“**B eredua.**- Bai gaztelania eta bai euskara, biak best irakasgaiak lantzeko erabiliko diren hizkuntzak dira. Gaztelania, berez, irakurketa-idazketa eta matematika bezalako irakasgaietako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko: esperientziak, plastika eta dinamika bereziki...”

“**D eredua.**- Irakasgai guztiak -gaztelania ezik- oinarritz euskaraz landuko dira... Gaztelania, eskolako beste edozein irakasgai bezala emango da eskolaketan hasieratik.”

BBB, UBI eta LHn

“**A eredua.**- Irakasgai guztiak, Euskal Hezkuntza eta Literatura eta Hizkuntza Berriak izan ezik, oinarritz, gaztelaniaz emango dira. Euskara irakasgai komun eta obligatorioa izango da... Euskararen ezaguera-maila on bat eskuratu duten ikasle-taldeekin zenbait gai euskaraz ere landu ahal izango dira.”

“**D eredua.**- Irakasgai guztiak, Gaztelania, Hizkuntza eta Literatura eta beste Hizkuntza Berriak izan ezik, oinarriz euskaraz emango dira. Euskara ere, Gaztelania legez, irakasgai gisa emango da...”

Halaber, dekretu honek, 4. artikuluan, **X eredua** osatuko duten ikasleen definizioa egiten du:

“OHOk bere ikasketak Euskal Herriko Autonomi Elkartetik kanpo hasita eduki edo bere ohizko egoitza Autonomi Elkartean ez dutela egiazta dezaten ikasleei, euskara ikastea barkatu ahal izango die Hezkuntzarako Lurralde Ordezkaritzak, ikasleek, gurasoek edo tutoreek eskabide arrazoitua egiten badute, eta kasuan kasuko irakasmailarako Ikuskaritza Teknikoak egindako txostena alde zuzenetik jaso ondoren”.

Beraz “eredu” hau, legea egin zenean, salbuespen bezala pentsatuta zegoen, eta, gero datuetan ikusiko dugun bezala, horrela izan eta izaten ari da.

Ondoko taulan Eusko Jaurlaritzak proposaturiko, euskara zein gaztelania asignatura gisa ikasteko asteroko ordu-kopurua, eskaintzen dugu.

Eredu hauek bilatzen dituzten helburuak, orain arte emandakoa, sortu diren zenbait arazo, beraien balorapena, e.a. eskainiko dugu orain.

TAULA 1: Euskara zein gaztelania asignatura gisa ikasteko asteroko ordu-kopurua.

Irakasmaila	Asteroko orduak	
	Euskara	Gaztelania
Eskolaurre eta Hasiera Zikloa	4	4
Erdi Zikloa	5	5
Goi Zikloa	4	4
BBB 1,2	4	4
BBB 3	3	4 (Aukerakoa)
UBI	3	3(+4 Aukera)
LH1	4	4
LH2	4	2 (Orienta.)

A eredua

Legeak zioen bezala, eredu honetan irakasgai guztiak, euskara ezik, gaztelaniaz lantzen dira. Jatorri eta inguru soziolinguistiko ez euskalduna duten ikasleentzako pentsatuta dago.

Helburua ez da etorkizunean euskara irakaskuntzarako erabiltzea, euskara ongi ulertzea eta egoera arruntetan euskaraz mintzatzeko gaitasuna lortzea baizik. Eredu honekin elebidun pasiboa lortu nahi da.

Eredu honen antolaketan zenbaitek horrela arrazonatu zuten: hizkuntza atzerritar bat ikasteko 600 ordu behar badira, eskolaurretik hasita OHO bukatu arte ikasle hauek 900 orduz landuko dute euskara. Baina egindako ikerketa eta azterketetan eredu honek bere helburua ez duela lortzen frogatu da (CUMMINS, 1988, EIFE 1, EIFE 2, EIFE 3). Bertan lanean dabiltzan irakasleen iritziek ere gauza bera diote. Era berean, Administrazioak, eredu hau teorikoki balioagarria bada ere, praktikan jarritako helburuak ez dituela bete onartu du.

Euskararen maila minimoa ez badute lortzen, zailago egiten da pentsatzea OHOk Goi-Mailetan zenbait asignatura euskaraz eman daitezkeenik (guk behintzat ez dugu horrelako esperientziarik ezagutzen). Beraz, oso zorrotzak izango bagina eta zenbait autoreren (FISHMAN, 1976; HAMERS eta BLANC, 1983; VILA, 1983; FERNANDEZ, SANCHEZ eta TEMBLEQUE, 1986; SIGUAN eta MACKAY, 1986) iritzia kontutan hartuko bagenu, eredu hau ez litzateke benetako elebidun sistema kontsideratuko (LUKAS, 1990).

Dena den, eredu marginal bilakatzeko arriskuan egon daiteke (gehienbat ikastetxe publikoetan, non euskara ikasi ezin duten eta ikasi nahi ez duten irakasleak pilatzen diren).

D eredua

Eredu honetan irakasgai guztiak, gaztelania ezik, euskaraz lantzen dira. Nagusiki euskaldunentzako zuzendutako eredua izango litzateke. Bere

helburua, eukara aberastea izango litzateke, komunikazioan eta irakas-kuntzan erabiltzeko hain zuzen ere. Baita Euskal Herria euskalduntzeko eragile bihurtu ere.

Zenbaitentzat hau izango litzateke Euskal Herrirako baliozkoa den hezkuntza elebiduneko sistema bakarra. Dena den, lehen A ereduaz hitz egiterakoan, eta zorrotz izanez gero, ezin bagenezake benetako hezkuntza elebiduna bezala onartu, gauza bera gertatzen da D ereduarekin (LUKAS, 1990).

Helburu pedagogikoei dagokienez, eredu honek ederki betetzen dituela esan genezake: alde batetik, nahiz eta gaztelania irakasgai bezala landu, A eta B ereduko maila lortzera iristen dira ete bestetik, euskara-maila bikaina lortzen dute, hots, elebidun orekatuak izatera heltzen dira. Esan behar ere beste irakasgaietan inongo atzerapenik ez dutela jasaten (LUKAS, 1990), eta pertsonalitatearen beste faktoreetan (egokitzapen eskolarra, adimena, autokontzeptua, etab.) emaitza onak lortzen dituztela (NAYA, 1991).

Giza helburuei dagokienez berriz, hau da, Euskal Herria euskalduntzeko bultzatzailea izatea, gure zalantzak ditugu. Ezaguna da egunetik egunera ikastola eta ikastetxe askotan gazteagotandik hasten direla haurrak beren artean gaztelania erabiltzen.

Hala ere, eredu honek onarpen handia du gizartean eta azken urte hauetan gorakada izan du eta gaur egun mantendu egiten dela dirudi. Hasiera batean haur euskaldunentzat

pentsaturiko eredia bazen ere, haur erdaldunetako talde osoak eredu honen bitartez eskolarizatuak dira gaur egun.

B eredia

Eredu honetan euskara eta gaztelania erabiltzen dira irakaskuntzan. Irakurketa-idazketa eta matematika gaztelaniaz lantzen dira eta beste irakasgai guztiak euskaraz. Ama-hizkuntza gaztelania duten ikasleei zuzendua dago. Onartutako definizioaren arabera, benetako hezkuntza-sistema elebiduna izango litzateke.

Bi helburu ditu:

- Linguistikoki, Euskara ulertzeaz gain, hitz egiteko ere gaitasuna lortzea.
- Akademikoki, Etorkizuneko ikasketak euskaraz jarraitu ahal izateko gaitasuna lortzea.

Eredu hau eztabaidatuena izan da, gaur egun ere hala da, eta etorkizunean ere, gure ustez, hala izango da. Hain hizkatua izateko bere baitan konpondu gabeko zenbait arazo eman direlako eta oraindik bere emankortasuna erabat frogatu gabe dagoelako izan da. Ikus dezagun astiroago zer esan nahi dugun.

Hasteko, B eredu-mota desberdin asko aurki daitezke. Eta hau ez bakarrik era desberdinetan aplikatu delako legea, baita irakaslego elebidunaren kopuruaren baldintza-rengatik ere, nagusiki ikastetxe publikoetan. Hasiara batean esperimentalki planteatu bazen ere diseinu hau, matrikula aldetik izugarritzko

haziera egon da guraso erdaldun askok eredu hau eskatu baitute beraien semeentzat. Honen ondorioz, irakaslego elebidunaren beharra egon da. Baina ikastetxe publikoetan irakasle elebakar asko aurkitzen delarik, maiz B ereduaren haziera normala oztopatu egin dute. Gaur egun oraindik arazo hau konpondu gabe dago. Horregatik zenbait ikastetxetan D eredia eskatu dute irakaslego guztia elebiduna izan dadin eta behin hori lortuz gero, hobekien iruditzen zaien diseinua aplikatu ahal izateko.

OHO bukatu ondoren jarritako helburu linguistikoa betetzen ote den oraindik zehaztu gabe dagoen beste aspektua da. Azterketa eta ikerketa desberdinek diotenez, nahiz eta D ereduko euskara-maila ez lortu, ikasle gehienek ulertzeko eta hitz egiteko maila dexentea eskuratzen dute. Dena den, oraindik hau zehatz-mehatz argitu gabe dago.

Guraso askok B ereduarekiko beste kezka bat dute: euskarari eskaintzen zaion denbora eta zenbait irakasgai euskaraz irakasteagatik, ez ote den edukien maila jaitsiko.

Azkenik, aipaturiko helburu akademikoari buruz, hots, OHO bukatu ondoren irakaskuntza gaztelaniaz zein euskaraz jarraitu ahal izateko gaitasuna, ez da ia ezertxo ere egin (guk behintzat ez dugu ezagutzen) betetzen denentz frogatzeko. OHO bukatu ondoren, gai izango ote dira ikasle hauek euskaraz jarraitu ahal izateko? eta gaztelaniaz?

Eredu hau bizi den egoera argitu

nahian UPV-EHUko irakasle-talde bat burutzen ari den ikerketa batean B ereduaren deskribapena eta tipologia egiten ari da.

Utz ditzagun gero-gerokoak eta ikus dezagun orain Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak, 1987an Autonomi Elkarteko ikastetxe guztiei bidalitako “B ereduko goi zikloko orientabideak” idatzian esaten zena:

“Puntu honetan hizkuntzen (euskara-gaztelania) erabilerari buruzko oinarritzko irizpide batzuk azalduko dira. Irizpide guzti hauen helburua edo helmuga, hala ere, ezin da ahaztu, hau da, “B” ereduan OHO bukaeran bi hizkuntzetan gaitasuna lortzearena. Honek zera esan nahi du, haurrak gauza izan behar duela OHO bukaeran edozein irakasgaitan bai euskaraz zein gaztelaniaz, ulertu, hitzegin, irakurri eta idazteko. Honek beharko du guztiontzat jo muga. Honetaz gainera, elebidun izate honek ondorengo ikasketari ikasleak nahi izango duen hizkuntzan (nahiz euskaraz zein gaztelaniaz) jarraitzeko posibilitatea emango dio haurrari.”

Helburu hau lortzeko, orientabide horietan beharrezkotzat jotzen da B ereduak diseinu ireki bat izatea erreferentzia minimo batekin: euskara

eta gaztelania denbora erdian erabiltzea. Euskararen prestigioa bai eskolan, bai kanpoan lortzea beharrezkoa dela aipatzen da. Aipatzen da halaber, eskolak ikusi behar duela gai bakoitza zein hizkuntzetan landu, baina legezkoa dela edozein gai lantzeko egituraketa misto edo nahasi bat egitea bi hizkuntzak parte izateko.

Orrialde horietan matematikan erabili behar den hizkuntzari buruz ere zenbait orientabide ematen dira:

“Ikasleak eduki matematikoak bigarren hizkuntzan ez baditu landu, ez du hizkuntza horren terminologia matematikoa ezagutzen, ez eta kontzeptuen berbalizazio eta testu idatziak menperatzen. Honek irakaskuntza elebidunaren ikuspuntutik hutsune bat suposa dezake, batez ere ondorengo ikasketak bigarren hizkuntzan egiten baditu ikasleak.”

Testuak dioenez, ikastetxe bakoitzak saiatu egin behar du aterabide bat bilatzen, matematikako programetan bi hizkuntzei lekua utziz, baina ez da ezer gehiagorik zehazten. Lan makala bertan lanean ihardun behar dutenentzat. Ez ote gara ari diseinu irekia eta bakoitzak nahi duena nahi duen gisan egitea nahasten?

Ondorengo koadroan laburbiltzen dira A, B eta D ereduei buruz aipatutako ideiarik garrantzitsuenak.

TAULA 2: Hiru eredu linguistikoaren ezaugarri nagusiak (LUKAS, 1990).

EREDUA	A	B	D
Deskribapena	Ikaslaro guztiak euskara ezik gaztelaniaz. OHoko goi-mailetan posible izanez zenbait asignatura euskaraz	Euskara eta gaztelania ikaslaro gisa lantzeaz gain, beste ikaslaroetan ere biak erabiliko dira. Irakurketa/idazketa eta matematika gaztelaniaz, besteak euskaraz	Ikaslaro guztiak, gaztelania ezik, euskaraz
Nori zuzendua	Erdaldunei	Erdaldunei	Euskaldunei Erdaldunei?
Helburuak	Euskararen ikaskuntza pasiboa. Hots, euskaraz bizitza arruntean komunikatzeko gai izatea	Euskara ikasi eta maila ertaineko ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko gaitasuna lortzea	Euskara aberastea Gaztelaniaren maila nahikoa izatea. Euskal Herriaren euskalduntzearen eragile izatea
Zein Ikastetxek eskaintzen dute?	Publikoek Pribatuak	Publikoek (nagusiki) Pribatuak Ikastolek	Ikastolek
Matrikulatzea	Beherantz	Gorantz	Gorantz/Mantenduz
Lortutako emaitzak	Ez dute euskara ikasten	A ereduaren erdara maila. Nahiz eta euskara ikasi, ez dira D ereduaren mailara heltzen	Gaztelanian besteak bezain emaitza ona. Euskara-maila oso ona
Elebitasun-Mota	Elebakarrak	Elebidun desorekatuak	Elebidun orekatuak
Arazoak	Euskara ikasteko metodo desagokiak. Motibazio-falta. Ikasteko borondaterik ez.	Irakaslego-falta. Koordinazio-falta. B eredu-mota desberdin asko egotea Noiz eta nola landu matematika euskaraz. Noiz eta nola landu irakurketa/idazketa gaztelaniaz. Irakasleen prestakuntza.	Maila ertaineko ikasketak euskaraz egiteko posibilitaterik ez izatea. Unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteko posibilitaterik ez izatea. Gazteagotandik gaztelania erabiltzen hastea.
Etorkizunari begira	Eredu marginal bihurtuko ote da? (gehienbat ikastetxe publikoetan)	Maila ertaineko ikasketak euskaraz egiteko gai izango ote dira? Kalean euskara erabiliko ote dute?	Euskaraz ikasten jarraitu ahal izateko bitartekoak jar ditzaten presio soziala emango ote da? Kalean euskara erabiliko ote dute?

3.2. Testuinguru juridikoa Nafarroan

Ikuspuntu integratzaile batetik, esan dezakegu Nafarroan Euskararekiko tratamendu murriztaileena bertako legeriak ezartzen duela, bere isladapen argigarriena Euskarari buruzko foru-legea delarik.

Baina lege honek, eduki badauka aurrealdintzarik. Aztertu ditugu jada Espainiako konstituzioaren inplikazioak. Izan ere, maila goreneko lege honek arautzen duen xedearen barruan, 1982ko Abuztuaren 10ean ezartzen da Nafarroako estatutua den Foru-Hobekuntzarako legea. Lege honek bere 9. artikuluan sortzen du eskualde euskaldun eta ez-euskaldunen arteko bereizketa.

13/1982 Lege Organikoa, Abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa

9. artikulua.

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.

2. Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eskualde euskaldunetan.

Foru-lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza honen irakaskuntza ordenatuko du.

Beraz, lehenengo puntuan argi eta garbi azaltzen da Nafarroako hizkuntza ofiziala Gaztelania dela. Eta bigarrenean lurraldeen arteko mugaketa, Euskararen ofizialtasunari

dagokionez, ezartzen da. Aldi berean, Euskararen erabilpen ofiziala lege baten bidez arautu behar dela agintzen du.

1986ko Abenduaren 15an, Foru Hobekuntzarako legearen aginduari helduz, "Vascuence"aren legea indarrean ezartzen da. Jakina den bezala lege honek Nafarroako udalerriak hiru eskualdetan banatzen ditu eskualde euskaldun, eskualde misto eta eskualde ez-euskaldunean.

Beharbada, bereizketa honek sortarazten du lege honek eragiten duen euskararekiko tratamendu murriztailea, zeren eta tratamenduaren garapena bereizketa honetan oinarritzen baita.

Lehenik eta behin esan dezagun inon ez dela argitzen zein irizpidetan oinarritu diren legegileak aipaturiko mugaketa ezartzeko.

Aspektu honi buruz, LARRAÑAGAK (1990) idatzi du: "banakuntza horixe da hain zuzen ere, lege honen berezitasunetako bat Hego Euskal Herriko beste hiru herrialdeak biltzen dituen legearekiko; azken hauetan ez bait da hizkuntz eremurik bereizten eta legeak indar bera du Gipuzkoa edo Bizkaiko eskualderik euskaldunenean eta Arabako Errioxan edo Enkartzazioetan".

LARRAÑAGAK berak (1990), 1986. urteko erroldaren datuetan oinarrituz, egiten du hiru eremuen deskribapen demolinguistikoa:

- **Eremu euskalduna:** 61 udalerrri, 56.063 biztanle. Udalerrri gehie-

nek, 2/3tik gora, euskaldunen proportzioak % 50ekoak baino altuagoak agertzen dituzte. Beste muturrean, hiru udalerrri besterik ez dira % 10aren azpitik aurkitzen direnak.

- **Eremu mistoa:** 48 udalerrri, 263.817 biztanle. % 10 baino euskaldun gehiago dituzten udalerrriak 5 diren bitartean, % 5 baino gehiago dituzten udalerrriak 20ra iristen dira. Beste 23 udalerrri % 0,5aren eta % 4,9aren artean kokatzen dira. Azkenik, beste 5 udalerritan ez dago euskaldun bakar bat ere.
- **Eremu ez-euskalduna:** 156 udalerrri, 182.109 biztanle. Eremu honetan % 5 baino euskaldun gehiago duten udalerrriak 4 dira. Bestalde, % 1 baino euskaldun gehiago duten udalerrriak 38 dira. Euskaldun gutxi (% 1 baino gutxiago) dituzten udalerrriak (73) eta euskaldun bakar bat ere ez dutenak (41) gehiengo nabarmena dira eremu honetan.

Beraz, zenbakiei begiratuz gero ez dago jakiterik zein irizpide erabili den eskualdeen arteko mugaketa ezartzeko.

ZABALETAK (1990) ere egiten du aspektu honen aipamena: "hiru lurraldeetako bereizketa egiten da, hiru eremutan alegia. Ez da mugaketarik edo kontzepturik ematen. Bakarrik herri-zerrendak ematen dira, bai eremu "vascofonoko"ak eta baita lurralde mistokoak ere."

Bereizketa honek honoko hau adierazten du: legean jasotzen diren

eskubideak ez dira herritarren edo pertsonen eskubideak, lurraldetasunean oinarri-tutako ahalak edo posibilitateak baizik. Ez du axolarik nongoa zaren, non zauden baizik. Esate baterako, leitzar batek Tuteran, ezin dezake eska Euskarazko irakaskuntza publikorik; tuteratar batek aldiz, Leitzaan euskarazko irakaskuntza aukera dezake bere seme-alabentzat.

Legearen I. tituluaren, II., III. eta IV. kapituluetan Euskararen erabilpen ofiziala arautzen da. Hauxe azpimarratuko genuke:

- **Eskualde euskaldunean** hiritarrak aukera dezake administrazioarekiko harremanetarako hizkuntza. Administrazioak, bere aldetik, aukeratutako hizkuntzan erantzun behar dio.

II. Kapituluak: Erabilpen ofizial eskualde euskaldunean.

10. artikulua

1. Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute. (...)

11. artikulua

Erabilitako hizkuntza edozein izanik, administrazio-iharduera guztiak baliozkoak izanen dira eta legezko eraginkortasun osoa izanen dute. (...)

- **Eskualde mistoan** herritarrak aukera dezake administrazioarekiko harremanetarako hizkuntza. Baina ez da ezer arautzen administrazioaren erantzunari buruz.

III. Kapituluua: Erabilpena eskualde mistoan.

17. artikulua

Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoei zuzentzeko. (...)

- **Eskualde ez-euskaldunean** hiritarrak eskubidea dauka nahi duen hizkuntza erabiltzeko administrazioarekin, baina honek itzul dezala eska diezaioke.

IV. Kapituluua: Erabilpena eskualde ez-euskaldunean.

18. artikulua

Aitortu da hiritarrek Nafarroako Administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelaniarako itzulpena eska diezaiekete, edo, 9. artikuluan aurrikusitako itzulpen-zerbitzuak erabili.

Azken artikulua honi buruz, ZABALETAk (1990) honako hau idatzi du:

"artikulua hau bene-benetan ez da bakarrik tamalgarria, baizik eta baita ere zapaltzailea eta agian inkonstituzionala, hizkuntzaren arrazoiagatik pertsonak bereizi egiten bait ditu".

Legearen II. tituluak irakaskuntza arautzen du. Orokorki, legeak aipatzen dituen eskubideak OHOri dagozkio. Beste hezkuntza-aldiak aipatu egiten dira, baina ez da ezer zehazten beraiekiko eskubideei buruz. Honela labur daiteke:

- Eskualde euskaldunean guraso edo tutoreek aukera dezakete hizkuntza.

II. Kapituluua: Irakaskuntza eskualde euskaldunean.

24. artikulua

1. Ikasle guztiek irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretzat daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

2. Hezkuntza-maila ez-unibertsitarietan derrigorrezkoa izanen da euskara eta erdararen irakaskuntza, ikasle guztiek oinarrizko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun-maila nahikoa frogatu ahal izan dezaten (...)

- **Lurralde mistoan**, eskubideei buruz egiten diren aipamenak ez dira oso zehatzak edo argiak. Izan ere, ez da aipatzen aukera egin daitekeenik.

III. Kapituluua: Irakaskuntza eskualde mistoan.

25. artikulua

1. Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunaz eginen da, ikaste-txeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.

2. Hezkuntza-maila ez unibertsitarietan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarrizko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten.

- **Eskualde ez-euskaldunean** euskarazko irakaskuntza ez da aipatzen ere, hots, ez du inolako babesik; bai ordea, euskararen irakaskuntzak.

IV. Kapituluak: Irakaskuntza eskualde ez-euskaldunean.

26. artikulua

Euskararen irakaskuntza bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantziatua, sustapen-eta promozio-irizpideei jarraiki eta eskarien arabera.

Beraz, azken artikulua penagarri honen arabera eskualde ez-euskalduneko hiritarrek ez dute inongo eskubide argirik nafar guztien ondarea den euskarazko irakaskuntzari buruz.

Legearen III. tituluak komunikabide sozialei buruzko aipamena egiten du.

Beraz, lege hau hiru arlori dagokie, administrazioa, irakaskuntza eta komunikabide sozialak. Dena den, hiru arlo hauetarik garatuz doan bakarra irakaskuntza da. Izan ere, "Vascuence"aren lege honen ondotik, hemen azaldutakoa zehaztuz beste hainbat lege ezarri dira, beti ere honetan xedatutakoari helduz.

3.2.1. *Euskara gaur eguneko*

Nafarroako irakaskuntzan

Hizkuntz ereduak

Puntu honi dagokionez, Nafarroako legeriak "Euskararen irakaskuntza" eta "Euskarazko irakaskuntza" bereizten du. Honela, 1988ko Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru-dekretuak, besteak beste, hauxe arautzen du:

Euskararen irakaskuntza:

"**A ereduak:** Erdarazko irakaskuntza, euskara asignatura delarik."

Euskarazko irakaskuntza:

"**B ereduak:** Euskarazko irakaskuntza, erdara ziklo guztietan asignatura delarik, OHoko Hasiera eta Erdi Zikloen gai edo arlo baten hizkuntzatarako hartuko da, baita BBB, UBI, eta LHren bat edo biren hizkuntzatarako.

"**D ereduak:** Euskara hutsezko irakaskuntza, gaztelania asignatura salbu, kurtso eta ziklo guztietan."

1988ko Abuztuaren 30eko 848/1988 Foru Dekretuak arautzen du, besteak beste, B eta A ereduak dagozkien hainbat zehaztapen, eskolaurreko eta OHoko mailetan:

"Euskarazko irakaskuntza B ereduaren arabera duten ikastetxeek Hasierako Zikloan asignatura bat gaztelaniaz irakatsi behar dute, materia hauen artetik aukeratzen ahal dutelarik: Heziketa Artistikoa edo Gorputz Heziketa. Halaber, Erdiko Zikloan asignatura bat gaztelaniaz emanen da, materia hauen artetik aukeratzen ahal delarik: Natur Zientziak, Giza Zientziak edo Heziketa Artistikoa. Goiko zikloan bi asignatura emanen dira gaztelaniaz, lehenbizikoa materia hauen artetik aukeratzen ahal delarik: Natur Zientziak (Matematika eta Natur Zientziak alorretik) edo Giza Zientziak (Giza Zientziak, Erligioa eta Etika alorretik), astean, gehienez, 3 ordu izanen direlarik; bigarren asignatura hauen artetik aukeratzen ahal da: Heziketa Artistikoa eta Teknologia edo Atzerriko Hizkuntza.

Gaztelaniazko irakaskuntza, euskara asignatura izaki, A eredukoa duten ikastetxeek, hezkuntza administrazioaren baimena izan ondoan, goi-zikloko asignatura bat euskaraz irakasten ahaliko dute, beti ere ikasleagoak euskaraz aritzeko gaitasun linguistikoa erdietsi baldin badu, eta materia hauen artetik aukeratuko dute: Giza Zientziak (Giza Zientziak, Erlijioa eta Etika alorretik) edo Natur Zientziak (Matematika eta Natur Zientziak alorretik), astean, 3 ordu izanen direlarik".

Eredu linguistikoen bilakaera koantitatiboa

1. Euskal Autonomi Elkartean

Euskal Autonomi Elkarteko hezkuntza-sistema aztertu nahi badugu ezinbestekoa da eredu linguistikoen bilakaera koantitatiboaz hitz pare bat esatea.

Ondorengo bi grafiko eta tauletan ikus daitekeen modura eredu hauen bilakaera oso desberdina izan da, eta horretaz berehala hitz egingo dugu. Baina gai horri ekin baino lehenago egungo hezkuntza-sisteman eragina izaten ari den faktore garrantzitsu bat, jaiotze-tasaren jaitziera hain zuzen ere, aipatu beharrean gaude. Ezin dugu inola ere ahaztu Euskal Komunitate Autonomoko jaiotze-tasa Europako txikienetariko bat dela, eta honen eragina hezkuntza-sistemak zuzenean jasaten du.

Lehenengo taulan ikusten den bezala 1982-83 ikasturtean 83.046 haur matrikulatu ziren eskolaurrean; berriz, hamaika urte pasa ondoren, 1992-93 ikasturtean, 30.000 haur gutxiago matrikulatu dira. Egoera oraindik larriagoa da OHOk datuak aztertzen baditugu; 1982-83 ikasturtean 313.123 haur zeuden matrikulatuta, hamaika ikasturteko epe hau igaro denean, 206.150 baino ez ziren, beraz 107.000 haur gutxiago matrikulatu dira OHOn. Beraz ikasleen oso galera garrantzitsuak, eta ez dago zalantzan jartzetik honek eragin zuzena izango duela etorkizun hurbileko hezkuntza-sisteman (irakaslegoaren kontratazioa, gelen antolamendua, ikasleen kopurua ikasgeletan, ikastetxeen desagerketak, etab.).

Egoera den bezala ikusi ondoren azter dezagun orain hiru eredu linguistikoetan bilakaera koantitatiboa azken hamaika ikasturteotan. Datuok aztertuko ditugu bi ikasmaita desberdinetan, alde batetik eskolaurrekoetan, eta bestetik OHOkotan.

1.1. Eskolaurreko Matrikularen bilakaera

Lehenengo taulan ikus daitekeen modura egoera erabat aldatu da epealdi honetan, 1982-83 ikasturtean, eredu linguistikoan orokorki aplikatzen hasi ziren urtean, ikasleen gehiengo batek edo ez zuen euskarazko klaserik (X eredukoak % 17,8) edo euskara gai bezala ikasten zuten (% 36,1). Beste bi ereduen artean ez ziren populazio erdira ailegatzen (% 46,1); baina egoera urteak joan ahala aldatuz joan da.

Legeari jarraituz X ereduak salbuespen bat izateko bidea hartzen hasi zen eta ondorioz horretan matrikulatzen diren ikasleak gutxituz joan dira (1982-83an % 17,8 zen eta 1984-85ean % 1,2). Egoera honek A ereduaren hazkundea aldi baterako erakarri zuen, aplikazioaren lehenengo hiru urte horietan A ereduak ikasleen % 36,1 izatetik % 47 izatera pasa zen, baina 1984-85etik aurrera aldapan beherako bidea hasten da. Jaitsiera hau jarraia da, eta urtez urte duen presentzia bi edo hiru puntu txikiagotu da.

B eta D ereduak egoera bestelakoa izan da, bakoitzak 1982-83 urtean

populazioaren % 23 bazen ere, aurrez bien artean % 73 eskolaratzen dute; ia-ia 1992-93 ikasturtean matrikulaturikoen hiru laurdenak B edo D ereduak hasi dira ikasten.

Baina bi eredu hauetako bilakaera desberdina izan da; B ereduak 1982tik 1987ra haziera azpimarragarria izan zuen (% 23tik % 34ra pasa zen), eta geroztik badirudi topea egin duela eta azkeneko urteetan, 1987tik gaur arte, matrikulen % 36ra ez da ailegatu. D ereduak, berriz, lehenengo urte horietan matrikula ez zen asko handitu (% 23,1tik % 28,9ra), eta azkeneko bost urte hauetan haziera 9 puntukoa

Taula 3: Eskolaurtean Matrikulatzea ereduaren arabera (1982-1993)

IKASTURTEA	EREDUA				GUZTIRA
	A	B	D	X	
1982-83	36,1	23	23,1	17,8	83.046
1983-84	47,3	22,7	26,3	3,7	79.661
1984-85	47	23,6	28,1	1,2	76.656
1985-86	44,5	27,1	27,4	1,1	73.841
1986-87	39,3	30,8	28,7	1,2	70.970
1987-88	36,2	33,8	28,9	1,1	68.735
1988-89	33,3	35,8	29,7	1	64.997
1989-90	31,4	35,9	31,5	1	61.705
1990-91	29,1	35,6	34,1	1,1	58.671
1991-92	26,9	35,4	36,8	0,8	56.035
1992-93	25,9	35,2	37,8	1,1	53.118

izan da, % 37,8ra ailegatuz. Azkeneko bi ikasturteotan (1991-92 eta 1992-93an) D eredia ikasle gehienek aukeraturikoa izan da.

Datu hauen analisi bat egiterakoan kontuan izan behar dugu eredu linguistikoen aplikazioa progresiboa dela, eta gehienetan, ikasleek eskolaurrean aukeratutako eredia izango da gero, OHOn, aukeratuko dutena.

1.2. OHoko egoera


Euskararen egoera OHOn desberdina da oso, eta sakonki aldatzen ari da azkeneko urteotan, berehala ikusiko dugun bezala.

1982-83 ikasturteko datuak aztertzen baditugu, berehala B eta D ereduetako presentzia oso txikia zela ikus dezakegu; euskara ikasten ez zutenen kopurua (X eredukoa) gutxigatik gaintzen zuten, eta gehiago nagusi

batek (% 61,6ak) euskara asignatura bezala ikasten zuen.

Ondorengo urteetan X ereduak desagertzeko bidea hartu zuen, eta ondorioz, eskolaurrean gertatzen zen bezala, A eredia hazi egin zen. 1985-86 ikasturtetik aurrera eredu hau aukeratzaren dutenak % 1 izatera ez dira ailegatzen, beraz legeak agintzen duena eredu honetan betetzen dela esan daiteke.


A eredian matrikulatutakoak 1982-83 ikasturtetik 1985-86ra % 10 hasi ziren, baina urte hartatik aurrera gero eta ikasle gutxiago matrikulatzen da eredu honetan. Taulan ikus dezakegun bezala 1985-86 ikasturtean A eredian ikasleen % 71,6 zegoen matrikulatua, berriz zazpi urte bakarrik pasa ondoren % 47,5 baino ez dira. Baina datu hauek harrigarriak badira ere, oraindik askoz harrigarriagoak



Taula 4: OHOkO matrikulatzea ereduen arabera (1982-1993)

IKASTURTEA	EREDUA				GUZTIRA
	A	B	D	X	
1982-83	61,6	7,1	12,6	18,7	313.123
1983-84	65,9	6,9	14,8	12,5	313.221
1984-85	70,3	8,3	16,1	5,2	309.442
1985-86	71,6	10,2	17,2	1	302.383
1986-87	68,6	12	18,6	0,7	293.322
1987-88	65,5	14,3	19,5	0,7	281.790
1988-89	62,1	16,7	20,4	0,7	267.300
1989-90	58,2	19,6	21,5	0,7	251.337
1990-91	54,6	21,9	22,8	0,7	235.168
1991-92	51,0	24,2	24,2	0,6	219.137
1992-93	47,5	26,1	25,6	0,8	206.150

Linea horiek ereduaren absolutuak erakusten dituzte, eta guztira 216.555 ikasle erregistratu zituzten.



ailegutzen zen, beraz eredu honek 119.000 ikasle galdu ditu zazpi urtetan, kontuan hartzen badugu zazpi urte hauetan 96.233 ikasle gutxiago matrikulatu dela, argi geratzen da, gure ustez, gurasoek ez dutela konfidentzarik eredu honetan, eta ondorioz beren seme-alabak ez dituztela bertan matrikulatzen.

Egoera oso desberdina da B eta D eruedetan. Bi eredu hauek, grafikoan oso garbi ikusten den bezala, gorakako bidea hartu zuten 1982-83 ikasturtean eta oraindik horretan diraute. **Bi eredu hauetan matrikulatutakoak elkartzen baditugu, aurten, lehenengo aldiz, gehiengoa osatzen dute (% 51,7).**

Baina bilakaera ez da izan erabat paraleloa, epealdi honetan D eredia bikoiztu baldin bada (% 12,6tik % 25,6ra), B ereduak hazkunde handiagoa jasan izan du (% 7,1etik % 26,1era), eta une honetan, baita ere lehenengo aldiz, matrikula-kopuruan D eredia gainditzen du.

2. Nafarroan

Nafarroan euskarazko irakaskuntza 1965. urtean hasten da, lehenengo ikastola zabaltzearekin batera. Honez geroztik ikastolen zabaltze-prozesua garatuz doa. Esan daiteke, urte askotan ikastola-sarea izan dela euskarazko irakaskuntzaren zabalkundearen protagonista bakarra.

70.eko hamarkadan ikastola-sarea nabarmenki zabaltzen da, bai ikastetxe- bai ikasle-kopuruari dagokionez. Ondoko taulan gehitze hauek azaltzen

dira:

Taula 5- Nafarroako ikastola-kopurua: 1969/1980.

(Iturria: STEE-EILAS)

Bestalde, 70.eko hamarkada honen bigarren erdialdean, euskarazko

Ikasturtea	Ikastetxe-kopurua	Ikasle-kopurua
1969/70	4	348
1974/75	19	1.892
1979/80	42	4.909

irakaskuntza ikastetxe publikoetan sartzten hasten da.

80.eko hamarkada bitartean euskarazko irakaskuntza progresiboki zabalduz joan da. Zabaltze hau 6. taulan isladatzen da.

Datu hauetan oinarrituz, kontsiderazio batzuk egin daitezke:

- 80.eko hamarkada bitartean euskarazko irakaskuntza, orohar, zabalduz joan da.

- Sare publikoko matrikulaketa indartu eta handitu den bitartean, ikastoletakoa moteldu egin da.

- Ertainetako euskarazko irakaskuntza, sare publikoan nabarmenki indartu da.

Dena den, datu absolutu hauek engainagarriak izan ez daitezen, portzentaiekin lan egin behar dugu.

Taula 6- Euskarazko irakaskuntzaren garapena. Matrikulatutako ikasle-kopurua 1984/85 - 1988/89 bitartean.

	OHO		BBB		LH	Guztira
	Ikastolak	Publikoak	Ikastolak	Publikoak	Publikoak	
1984/85	4.165	796	166	--	--	5.127
1985/86	4.439	1.128	171	--	--	5.738
1986/87	4.414	1.655	210	167	--	6.446
1987/88	4.819	3.078	206	403	54	8.560
1988/89	4.628	3.319	214	621	162	8.944

Iturria: Nafarroako mapa eskolarra 1990.

Ondoko taulan euskarazko ikasleak, ikasle-kopuru orokorrekin alderatuak agertzen dira.

... irakaskuntzaren garapena, ... eta ... ereduak kontsideratu dira. Esan behar da, Nafarroan "B" eredu, gaurdaino behintzat, ogo gutxi hedatu dela. 1992/93 ikasturtean, eredu honetan,

Taula 7- Euskarazko irakaskuntzaren garapena. Matrikulatutako ikasle-kopurua eta portzentaiak: 1988/89 - 1992/93 bitartean. Kopurua eta %.

		1988/89		1989/90		1990/91		1991/92		1992/93	
		Eusk.	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.	Gazt.
E.A.	N	3.212	13.038	2.898	11.398	3.179	11.964	2.976	11.413	3.227	11.293
	%	19,75	80,25	20,3	79,7	21,13	78,87	20,68	79,32	22,22	77,77
OHO	N	7.002	53.878	7.145	51.312	7.385	49.144	7.534	45.882	7.773	42.863
	%	11,5	88,5	12	88	13,06	86,93	14,12	85,88	15,32	84,48
BBB	N	835	17.697	1.125	18.021	2.015	17.529	1.575	17.187	1.634	16.796
	%	4,4	95,6	6	94	10,3	89,7	8,39	91,61	8,87	91,13
LH	N	183	12.806	212	12.976	378	10.870	308	14.076	392	14.845
	%	1,4	98,6	2	98	3,36	96,64	2,14	97,85	2,57	97,42
Guztira	N	11.221	96.754	11.380	93.679	12.957	89.507	12.393	88.498	13.026	86.318
	%	10,04	89,96	10,08	89,92	12,64	87,36	12,28	87,72	13,11	86,88

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Saila.

216 ikasle matrikulatuta zeuden, 40 Eskolaurrean, 127 OHOn eta 49 LHan. "A" eredu, gaztelaniazko irakaskuntzat kontsideratu da. Eredu honetako ikasleak, 1992/93 ikasturtean, eskualdeka honela banatzen dira: eskualde euskaldunean 3.035, eskualde mistoan 1.765 eta eskualde ez-euskaldunean 1.448.

Datu hauen aurrean beste zenbait kontsiderazio egin nahi ditugu:

- Euskarazko irakaskuntza gutxika-gutxika igo egin bada ere, azkeneko urteetako hazkunde oso geldia izan da. Badirudi euskarazko irakaskuntzaren matrikula-kopurua egonkortzen ari dela. Dena den, jaiotze-tasaren gutxitzea kontutan hartuz, hazkunde txiki hau estimagarria da.

- Euskaraz ikasten ari den ikasle-kopurua, portzentualki oso txikia da (% 13,11).

- Azkeneko urteetan, ertainetan, gorakada nabarmena antzeman daiteke. Hazkunde handiena BBBn egin da (kopuru handiena, geografikoki, Iruñean biltzen delarik); LHn oso gutxi zabaldu da euskarazko irakaskuntza (kopuru handiena, geografikoki, eskualde euskaldunean bildurik). Hala ere, gaztelaniazko irakaskuntzaren ondoan, oso portzentaia txikia da (92/93 ikasturtean % 7,57).

Ikastola-sareari dagokionez, Nafarroako gobernuko iturrien arabera, 1990/91 ikasturtean 24 ikastola zeuden. Beraz, azken urte hauetan ikastola-kopuru absolutua jaitsi egin da. Izan ere, ikastola txiki batzuk,

aurrera jarraitu ezinik, sare publikoan integratu dira (eskualde euskalduneko herri txikietakoak batez ere: Igantzi, Etxalar, Leitza, e.a.). Ikastolak ondoko herri hauetan kokatzen dira:

- Eskualde euskalduna: Bera, Lesaka, Elizondo, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Urdiain, Altsasu eta Olazti.

- Eskualde mistoan: Atarrabia, Iruñea (4 ikastetxe), Zizur Txikia eta Lizarra.

- Eskualde ez-euskaldunean: Irunberri, Zangotza, Tafalla, Biana, Sartaguda eta Tuteria.

Ikastola hauetatik, batek bakarrik ematen du batxilergoa.

Sare publikoari dagokionez, euskarazko irakaskuntza, poliki-poliki bada ere, zabalitzen ari dela esan behar dugu. Izan ere, 92/93 ikasturtean, sare publikoan 8.028 ikasle matrikulatuta zeuden bitartean, ikastola-sarean 4.939 ikasle zeuden; sare pribatuan 59 besterik ez zegoen. Hala ere, eskualde ez-euskaldunean, sare publikoan, euskarazko irakaskuntzak ez du inongo presentziarik. Eskualde mistoan ondoko herri hauetan ematen da: Abaurrea, Aoiz, Barañain (2 ikastetxe), Berriozar, Burlata, Zizur Handia, Huarte-Iruñea, Jaurrieta, Otxagi, Iruñea, Gares eta Atarrabian. Eskualde euskaldunean oso zabaldua dago; eskualde honetan ikastetxe publiko gehienek eskaintzen dute euskarazko adarra, zenbait herritan eredu bakarra delarik (Igantzi, Arantza, Goizueta, Areso, e.a.).

Sare publikoko maila ertaineko euskarazko irakaskuntzari dagokionez, Lanbide Heziketa honako herrietan ematen da: Altsasu, Bera, Elizondo eta Iruñean (2 ikastetxe). Batxilergoa ondoko beste hauetan: Altsasu, Barañain, Burlata, Lizarra, Lekarotz (Baztan), Bera eta Iruñean (3 ikastetxe).

Sare pribatuari dagokionez, euskarazko irakaskuntza ematen duen ikastetxe bakar bat dago, eskualde euskaldunean, "B" eredia ematen duelarik (1991/92 ikasturtean 57 ikasle).

"A" eredia euskarazko irakaskuntzatzat jotzen ez badugu ere, aipagarria iruditzen zaigu nafarroako erdialdeko eta Erribera aldeko zenbait herritako ikastetxe publikoetan, gurasoek hala eskaturik, eredu hau ematen hasi dela. Hala nola: Ablitas, Arellano, Bargota, Berbizana, Carcastillo, Castejón, Cortes, Estella, Falces, Isaba, Mendigorria, Miranda de Arga, Obanos, Orcoyen, Oteiza de la Solana, Peralta, Sada de Sangüesa, Salinas de Oro, Sartaguda, Tafalla, Villafranca,

Villatuerta.

Ondorioak

Orokorrean ikus dezakegu urteak joan ahala euskararen eta euskarazko irakaskuntza aurrera doala Nafarroan eta Euskal Autonomi Elkartean; hala ere, portzentualki, askoz zabalduago eta finkatuago dagoela Euskal Autonomi Elkartean Nafarroan baino. Desberdintasun honetan eskualde bakoitzeko errealitate soziolinguistikoak, dudarik gabe, nabarmenki eragiten du. Baina baita marku juridikoak ere. Izan ere Nafarroan dagoen eskualdekaketak euskarazko irakaskuntzaren aurrera egitea eragozten du. Nafarroan, Euskal Autonomi Elkartean ez bezala, euskara ikastea eskualde euskaldunean baino ez da derrigorrezkoa.

Bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA, I. (1991): Hizkuntzen ofizialtasunaz. *Jakin* 65, 11-38 or.
- AIERBE, P. (1983): Situación general y escolar del bilingüismo en Euskadi. In Siguan, M. (Ed.): *Lenguas y educación en el ámbito del estado español*. (19-33 or.) Bartzelona: Universidad de Barcelona.
- AIERBE, P., SATRUSTEGI, L.M., & ETXEZARRETA, J.A. (1974): Ikastoletako haurren jakite mailaren azterketa konparatiboa. *Zeruko Argia*, irailak 22, 603 or.
- ARISTI, A. eta cols. (1979): *El lenguaje en la educación preescolar y ciclo preparatorio*. Iruñea: M.E.C.
- ARREGI, P.; BASURCO, F.; ETXEBERRIA, F.; NAYA, L.M. eta RODRIGUEZ, F. (1989): La Educación en Euskadi. Ponencia presentada en el VII Seminario Interuniversitario de Teoría de la Educación. Donostia.
- ASTIGARRAGA, E. eta besteak (1988a): Eredu lingüistikoen azterketa Eibarko ikastetxeetan. II. *Euskal Mundu-Biltzarra. Euskararen Biltzarra. III Alea*. (75-81 or.): Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia.
- ASTIGARRAGA, E. eta besteak (1988b): Eredu lingüistikoen aukeraketan faktore sozialek duten eragina. II. *Euskal Mundu-Biltzarra. Euskararen Biltzarra. III Alea*. (83-88 or.): Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia.
- CUMMINS, J. (1988): Research and theory in bilingual education: The Basque situation in international perspective. II. *Euskal Mundu-Biltzarra. Euskararen Biltzarra. III Alea*. (197-210 or.): Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia. Gasteiz.
- ETXANIZ, J., & LUKAS, J.F. (1988): Axular Lizeoa: B ereduaren eredu bat. *Eskola*, 20/21, 46-49 or.
- ETXAGUE, X. (1992): *Nafarroako "D" ereduko, 8. mailako ikasleen euskara errendimendua. Hainbat aldagai eskolarren eragina*. Argitaratu gabeko tesi Doktorala. Donostia: UPV/EHU.

- ETXAGUE, X. (1992): Euskara errendimendua: hainbat aldagairen eragina, *Tantak*, 8, 81-98 or.
- ETXAGUE, X. (1992): Nafarroako "D" ereduko ikasleen euskara errendimendua: azterketa deskribatzailea, *Tantak*, 9, 21-44 or.
- ETXEBERRIA SAGASTUME, F. (1984a): Elebitasunari buruzko ondorioen bilakaera historikoa; elebitasunari buruzko azterketak. *Isilik*, 4, 7-12 or.
- ETXEBERRIA SAGASTUME, F. (1984b): Irakaskuntz elebidunaren helburuak. *Isilik*, 4, 39 or.
- ETXEBERRIA BALERDI, F. (1985): *Elebitasuna eta hezkuntza Euskalerrian*. Argitarako gabeko Tesi Doktorala. Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- ETXEBERRIA BALERDI, F. (1987): Bilingüismo y rendimiento escolar en el País Vasco. En Etxeberria Balerdi, F. (Ed.): *El fracaso de la escuela* (151-176 or.): Donostia: Erein.
- ETXEBERRIA BALERDI, F., & AIERBE, P. (1988): Eskolako euskal elebitasunaren ikerketa (1974-1987): *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskararen Biltzarra. III. Alea*. (129-135 or.): Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia. Gasteiz.
- ETXEZARRETA, I. GARAGORRI, X. & OSORO, I. (1984): Elebitasuna ikastoletan egoera eta irtenbideak. *Jakin*, 32, 67-69 or.
- EUSKO JAURLARITZA (1982): *Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarritzko legea*, 1982ko azaroaren 24a.; E.H.A.A. 1982.eko Abenduaren 16ko 160. Alea.
- EUSKO JAURLARITZA (1986): *E.I.F.E.: Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA (1987): *B ereduko Goi Zikloko orientabideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA (1989a): *Euskara gaur eguneko hezkuntza araubidea*. Gasteiz: Publizitate zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (1989b): *E.I.F.E. 2: Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- EUSKO JAURLARITZA (1990a): *E.I.F.E. 3: Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA (1990b): *Euskal Irakaskuntza: 10 urte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA (1992): *HINE. Hizkuntza idatziaren azterketa eskolan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSTAT (1984-1992): *Irakaskuntzaren Estatistika*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- FERNANDEZ, J., SANCHEZ, M.P. & TEMBLEQUE, R. (1986): La educación bilingüe: Enseñanza de una segunda lengua y lengua extranjera. *Infancia y Aprendizaje*, 33, 121-136 or.
- FISHMAN, J.A. (1976): *Bilingual Education*. Rowley: Newbury House Publishers.
- GARAGORRI, X. eta besteak (1983): Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera. *Jakin*, 28, 6-60 or.
- GARMENDIA, M.C. (1984): Euskal irakaskuntzaren historia apur bat. *Isilik*, 4, 33 or.
- GOBIERNO DE NAVARRA (1990): *Mapa escolar de Navarra*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- GOBIERNO DE NAVARRA (1991): *Estadística educativa de Navarra. Curso 1990-1991*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- GOBIERNO DE NAVARRA (1992): *Estadística educativa de Navarra. Curso 1991-1992* (tríptico): Iruñea: Gobierno de Navarra.
- HAMERS, J.F., & BLANC, M. (1983): *Bilingualité et bilingualisme*. Bruxelles: Pierre Mardaga.
- HERRI-ARDULARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA (1989): *Euskarari buruzko araubidea*. Gasteiz: Euskal Herriko Autonomia Elkarte Administrazioa.
- LAMBERT, W.E. (1982): Algunas consecuencias cognitivas y socioculturales del bilingüismo. *Revista de Occidente*, 10/11, 145-165 or.
- LARRAÑAGA, I. (1990): Nafarroako egoera demolinguistikoa. *Jakin*, 56, 35-72 or.

- LASA, M. (1978): Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeke oinarrizko ideia batzu. *Jakin*, 7, 47-60 or.
- LUKAS, J.F. (1989): Goi zikloko B ereduaren antolaketa ertainetako ikasketetan D ereduari integrazioa lortzeko: Axular lizeoan 87/88 ikasturtean egindako esperientzia bat. *Eskola*, 22, 2-5 or.
- LUKAS, J.F. (1990): *Trebetasun eta errendimendu matematikoa testuinguru elebidunean*. Argitaratu Gabeko Tesi Doktorala. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LUKAS, J.F. (1989): Trebetasun eta errendimendu matematikoa testuinguru elebidunean: Ikerketa baten emaitzak. *Tantak*, 5, 51-68 or.
- M.E.C. (1989): *Ley Orgánica del Derecho a la Educación y disposiciones reglamentarias*. Madril: M.E.C. / B.O.E.
- M.E.C. (1990): *Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo*. Madril: M.E.C. / B.O.E.
- NAFARROAKO GOBERNUA. Lehendakaritza eta Barne Departamentua. (1989): *Euskara, Nafarroako Irakaskuntzan*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- NAYA, L.M. (1991): *Adaptación Escolar y bilingüismo en 8º de E.G.B. en la comarca de Donostia-San Sebastián*. Tesis Doctoral Inédita. Donostia: UPV/EHU.
- NAYA, L.M. (1991): Egokitzapen eskolarra eta elebitasuna: hurbilpen teorikoa, *Tantak*, 7, 21-31 or.
- NAYA, L.M. (1991): Egokitzapen eskolarra eta elebitasuna. Donostian egindako ikerketa batean lortutako emaitzak, *Tantak*, 9, 45-60 or.
- OIHARZABAL, L. (1984): Euskara eta irakaskuntza. *Isilik*, 4, 28-32 or.
- OLASAGASTI, G. eta ITURRIZA, M. (1992): *O.H.O.ko "B" ereduari, ertainetan?* Lasarte: Lasarte-Oriako Udala.
- SANCHEZ, M.P., & FORTEZA, J.A. (1987): Bilingüismo e inteligencia. En Yela, M. (Ed.): *Estudios sobre inteligencia y lenguaje* (201-154 or.): Madril: Pirámide.

- SANCHEZ, M.P., & TEMBLEQUE, R.R. (1986): La educación bilingüe y el aprendizaje de una segunda lengua: Sus características y principios fundamentales. *Infancia y Aprendizaje*, 33, 3-26 or.
- SANCHEZ CARRION, J.M. (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación social del Euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: egileak argitaratua.
- SIGUAN, M. (1992): *España plurilingüe*. Madril: Alianza Universidad.
- SIGUAN, M., & MACKEY, W. (1986): *Educación y bilingüismo*. Madrid: Santillana/Unesco. Aula XXI.
- STEE-EILAS-en KONFERENTZIA (1990): *Euskara eta Irakaskuntza. Eztabaidarako txostena*. STEE-EILAS.
- TITONE, R. (1976): *Bilingüismo y educación*. Bartzelona: Fontanella.
- TORREALDAI, J.M. (1981): Ikastola euskal/erdal herrian. *Jakin*, 19/20, 6-21 or.
- UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZ MINTEGIA (1993): *Euskal Eskola Berria*. Donostia: EHUko hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila.
- VILA, I. (1983): Reflexiones en torno al bilingüismo y la enseñanza bilingüe. *Infancia y aprendizaje*, 21, 4-22 or.
- ZABALETA, P. (1986): *Euskal Irakaskuntza Nafarroan. Normalizaziorako Oinarriak*. Iruñea: Castuera.
- ZABALETA, P. (1990): "Vascuence"aren legea. *Jakin*, 56, 107-127 or.